

# Tren bidaiak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA

**I**kasturte honetan, lan tokia aldatu zait. Egunero, etxetik lehen baino urrunago joan behar dudalako, eta oro har autoa ahalik eta gutxien hartzera entseatzen naizelako, erabaki dut trenez egitea ikastetxerako bidea.

Lehendabiziko joan-etorritik harripatu ninduen tren unibertsoak.

Alde batetik, tren munduak gizar-tearen errealitateetik hurbilago egiten zaitu. Azpiegituren antolaketa tekniko eta administratiboak ezagutzeko plazera baduzu, sorpresaz sorpresa. Akitania Berriak kudeatzen dituen trenendako, txartela hala erosi behar duzula; SNCFaren ardurapean diren AHTrendako, hola. Halako goizez, trenak beranta izanen duela, bezperan egin konponketak ez duelako iraun; holako arratsalde, trena ez dela abiatuko, gidaria beste tren batean eskas den lankide baten ordezkatzera igorria dutelako... Egoera absurdoak irria zein haserrearekin har ditzakezula esplikatzen dizu kontrolatzaileak, jendetasun kutsua emanez makineria guztiari.

Bestaldetik, zentzugabekeria horietatik urrun eramaten zaitu tren munduak, irudimenezko mundura. Kaira heltzean, argitu gabeko goizean, bakarrik zaude, eta hasten zara asmatzen zer gertatuko zaizun eta nor ikusiko duzun ondoko minutuetan: gaua geltoki zoko batean pasatu duen etxegabeko batek kafea edateko doa galdeginen dizula; adingabeko afrikar ezkutu bat agertuko zaizula laguntza

Trena hartzean, ez zara  
nehoiz abiatu zinen  
bezal-bezalako heltzen.  
Tren mundu errealak  
eta irudimenezkoak  
aldatzen zaituzte,  
nahi ala ez

eske; bezperatik mozkorraldia bildu duen batek etxeakoak dei ditzakezun eskatuko dizula... Pittaka-pittaka, heldu dira zu bezalako langileak, begiak erdi eroriak, loak hartuak oraino, esku batez bizikletari, besteaz zaku bat edo biri datxezkiela.

Trena heltzen da, orduan. Gau beltza tutaz argitzen du, lehenik, eta laster bere presentzia burrunbatsuz bazterrak osoki betetzen. Barnean, hor daude jadanik zu baino goizago jaikiak, zoin lo, zoin musika entzuten ari, zoin irakurtzen, zoin ordenagailuz ala axotaz lanean. Tupustean, turrustan heldu zaizkizu irakurritako istorioak, eta bidaiariak bana-bana begiratuz, zaude hau ez ote den *Murder on the Orient Express*-eko eleberritik ateratako hiltzailea; beste hau, *Manhattan Transferre-*

tik jalgi izaki porrokatua; eta horrek, ez ote zuen *Dans le train*-eko bihotz ahuleko narratzailearen egitea; eta hura, preseski, *Juste avant la nuit*-ko emaztea, bere aitzinean eserita denaz bat-batean maiteminduko dena; eta bere gibelegoa, Londonen *The Road*-eko erromesa...

Trena hartzean, ez zara nehoiz abiatu zinen bezal-bezalako heltzen. Tren mundu errealak eta irudimenezkoak aldatzen zaituzte, nahi ala ez.

Frogatzat dauzkat oraino beste hiru obra literario. Lizardiren *Bultzileihotik*, lehenik, garaiko lirika hunkigarriarekin adierazten dizuna denbora-espazioan mugitzeak iharrausten dizula barneko intimitatea. Michel Butor-en *La Modification*, gero: narratzailea zuka ari den lehen testua omen da: irakurle posturatik jalgiaz zaitu, eta protagonistaren rola jantzarazten. Paristik Erromara zoaz, nobela horretan, eta hogeita bat orduz erabat kanbiatezen zaizkizu asmo sakonenak.

Urt Zubiaurre Otamendiren *Otzaurte* dut gogoan, azkenik (*Izenik gabeko lurrak*): horretan ere, narratzaile-protagonista irakurlea da, zu zara, eta amesten duzu wifirik ez den geltokiraino eramanez zaituela trenak, Otzaurtera. Edo zuzenago errateko, "trena hartu eta galtzeko nahia" izanen duzu, sei orriz, zure bizi zorotik ihes egiteko.

Tren bidaiak, errealitatean zein fikzioan galtzeko bidaiak dira, biak betan, dudarik gabe. ●